

Gaurko gizarte interkulturealean erizain konpetenteak hezitzen: Literatura errebisioa.



Egilea: Nahia Fiz Ortega

Ikasturte akademikoa: 2023-2024

Erakundea: Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskola, UPV-EHU

Hitzak: 6600.

ESKER ONA

Nire gurasoei, nire inspirazio iturririk handiena izateagatik eta mundu hau tolerantziatik eta umiltasunetik ulertzen irakasteagatik.

Nire lagunei, bidean zehar eskainitako laguntza paregabeagatik.

Nire tutoreari, lana garatzeko eskainitako orientazio eta dedikazioagatik.

Guzti horiei, gaur egun borrokatzen jarraitzen dutenek “desberdinak” izateagatik.

AURKIBIDEA

1.-SARRERA	4orr.
2.-MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	5-8orr.
2.1.-MARKO KONTZEPTUALA	5orr.
2.2.-LANAREN JUSTIFIKAZIOA ETA GARRANTZIA	7orr.
3.-HELBURUA	9orr.
4.-METODOLOGIA	10-12orr.
4.1.-DISEINU MOTA	10orr.
4.2.-BILAKETA ESTRATEGIA	10orr.
4.3.-BARNERATZE-KANPORATZE IRIZPIDEAK	11orr.
4.4.-HAUTAKETA PROZESUA	12orr.
4.5.-DATA ATERATZEA	12orr.
4.6.-ANALISI PROZESUA	12orr.
5.-EMAITZAK ETA EZTABAIDA	13-23orr.
5.1.-IKERKETEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOEN DESKRIBAPENA	13orr.
5.2.- HEZKUNTZA INTERBENTZIO MOTAK	16orr.
5.3.-EMAITZA NAGUSIAK	17orr.
5.3.1-KULTURAREKIKO EZAGUTZA	17orr.
5.3.2.-KULTURAREKIKO TREBETASUNA	19orr.
5.3.3.-KULTURAREKIKO AUTOERAGINKORTASUNA	20orr.
5.3.4.-KULTURAREKIKO SENTSIBILITATEA	21orr.
5.3.5.-KULTURAREKIKO ENPATIA	22orr.
5.3.6.-DEBRIEFING METODO OSAGARRIA	23orr.
6.-MUGAK	24orr.
7.-ONDORIOAK	25orr.
GAIAREN INPAKTUA GARAPEN-JASANGARRIKO HELBURUEKIKO	27.orr.
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA	28orr.
ERANSKINAK	32orr.

1.-SARRERA

Testuingurua: Gero eta identitate multikulturalagoa hartzen ari duen testuinguru batean bizi garenez, kulturalki kongruentea den arreta sanitarioa eskaintzeko beharra dago. Erizaintzako hezkuntzan gaitasun kulturala integratzearen arrazoia pazientean zentratutako arreta holistikoaren garapenean laguntzea da, pazienteen balio, lehentasun eta behar kulturalak identifikatu eta errespetatzen dituen. Aitzitik, ez dago akordio zehatzik kultura ahalmena garatzea ahalbidetuko duen hezkuntza programa egokia diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko.

Helburua: Erizaintza graduko ikasleengan gaitasun kulturala sustatzen duten hezkuntza esku-hartze ezberdinen eraginkortasuna aztertzea.

Metodoak: Ikerketa zientifikoaren analisiaren bitarteko literatura errebisioa PRISMA jarraibideak oinarri gisa erabilia.

Emaitzak: Aztertutako 16 artikuluen ebidentzian oinarrituta, Erizaintza Transkulturalaren ikasgaiak (n=1) eta murgiltze programek (n=2) kulturarekiko ezagutza esanguratsuki suspertu zuten, simulazio-programak ez bezala (n=2). Kulturarekiko trebetasunaren garapenean murgiltze (n=2) zein simulazio-programek (n=3) eraginkortasuna erakutsi zuten, agerian utziz ikasgaia magistralaren (n=1) huts egitea dimentsio praktikoago honetan. Kulturarekiko autoeraginkortasuna (n=5) aztertu zuten artikuluetatik, estrategia pedagogiko ezberdinek alderdi kognitiboa, praktikoa eta afektiboa maila ezberdinetan suspertu zuten. Bestetik, kulturarekiko sentsibilitatea supertzen lagundu zuten ikerketatik (n=6) , ikasgai magistrala estrategia erabili zutenak emaitza estatistikoki esanguratsuenak lortu zituzten. Azkenik, simulazio-programa erabili zuen azterketa bakarrak erakutsi zituen emaitza esanguratsuak kulturarekiko enpatian.

Ondorioak: Aztertutako estrategia pedagogikoak baliagarriak eta eraginkorak izan dira gaitasun kulturalaren konstrukto ezberdinen garapenean. Izan ere, ikerketen arteko uniformetasun faltak eta aldagai eta sesgo nahasgarrien presentziak analisi konparatiboa zailtzen dute. Hori dela eta, ebidentzietan oinarritutako jarraibide estandarrak ezartzeko beharra identifikatzen da zorrotasun handiagoa duten ekimenak ikertzen eta garatzen jarraitzeko.

Hitz gakoak: “Erizaintzako ikaslea” , “Heziketa”, “Erizaintza Transkulturala” eta “Gaitasun Kulturala”.

2.-MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

2.1.-MARKO KONTZEPTUALA

Kultura deritzogu gizarte edo gizarte-talde baten ezaugarri bereizgarrien, espiritualen, materialen eta afektiboaren multzoari. Kulturak, arteez eta letrez gain, bizimoduak, gizakiaren oinarriko eskubideak eta balioen, sinesmenen eta tradizioen sistemak biltzen ditu ¹. Zentzu honetan, kulturak definituko du hein handi batean bizitza, heriotza eta gaixotasun prozesua interpretatzeko daukagun modua, hala nola, nola gaixotzen garen, nola senda gaitetzen, eta nork edota zerk lagundu gaitzakeen sendatze prozesuan ^{2,3}.

Honen harira, osasuna determinatzaile sozial, kultural eta biologikoren arteko elkarrekintzaren ondorioa dela jakinda, baieztatu daiteke osasunaren inguruko kontzeptu desberdinak sor daitezkeela testuinguru kulturalaren arabera ⁴. Horrekin batera, osasun zerbitzu, zein osasun politika eta tratamendu mediko etnozentrikoak ere sor daitezke ^{5,6}.

Hori dela eta, gero eta multikulturalagoa den testuinguru batean bizi garenez, kulturalki kongruentea den arreta sanitarioa eskaintzeko beharra dago ⁵⁻⁷. Beraz, ezinbestekoa da osasun profesionalek konpetentzia kulturala garatzea. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio sistema, agentzia edo profesionalen artean bat egiten duten portaera, jarrera eta politika bateratuen multzoari zein egoera transkulturaletan eraginkortasunez lan egitea ahalbidetzen duena ⁸.

Konpetentzia kulturalaren historia eta eboluzioa

Kultura-gaitasuna zainketa transkulturalerikiko interesarekin batera garatzen hasi zen 1950eko hamarkadan, Estatu Batuetan. Hain zuzen ere, Madeleine Leininger izan baitzen gaur egun Erizaintza Transkulturala deitzen diogunaren aurrekaria. Erizaintza diziplinaren eremu formalak da zeinean zainketak indibiduoaren kulturaren, osasun eta gaixotasun inguruko sinismenetan, baloretan eta praktika desberdinetan oinarritzen diren, indibiduo horien osasuna mantentzeko eta berreskuratzeko, ezintasunei aurre egiteko eta heriotza prozesuan laguntzeko asmoz ⁹.

Leininger-ek proposatutako paradigmak azpimarratzen du zainketen oinarriak bizi garen gizarte- eta kultura-egituraren ezaugarrien adierazpen, eredu eta praktiken isla direla (hala nola, balioak, bizimodua, faktore politikoak, ekonomikoak, erlijiosoak, teknologikoak eta hezkuntzazkoak ere). Zentzu honetan, erizaintzako esku-hartzeak erabaki-, ekintza- eta portaera-modu horien eraginpean daude. Hala bada, Leininger-ek esparru teoriko nagusi bat garatu zuen, erizaintza transkulturala eta kultura-gaitasuna garatzen lagundu duena: *Aniztasunaren Teoria eta Kultura Zainketen Unibertsaltasuna* (1961). Geroago, *Eguzki Jaioberriaren Eredua* (1970) sortu zuen, munduaren ikuspegia zehazten duten faktoreek osasunari eta zaintzari nola eragiten dieten adierazten duena ⁹.

Gaur egun, badira beste eredu batzuk, aniztasun kulturalako gizarte batean erizaintza garatzeko bidea ematen dutenak, non kultura- zein ideologia-faktoreak ikerketa-objektuak diren. Esate baterako, Larry Purnell-ek *Kultur Gaitasunaren Eredua* (1995) ezarri zuen zeinean kultura gizartea, komunitatea, familia, pertsona eta osasuna bezalako kontzeptuekin partekatzen dituen. Teoria malgua da, hau da, edozein osasun-diziplina gidatu ditzake kultura-aniztasunaren aurrean esku-hartze egokiak garatzeko ^{10,11}.

Bestalde, Campinha Bacote-k (1996) dimentsio garrantzitsuak garatu zituen diziplina eremu honetan, gaitasun kulturalaren azpidimentsioak edota konstruktoak. Autore horren arabera, kultura-gaitasunaren prozesuak kontzientzia, ezagutza, trebetasuna, topaketak eta desio kulturalak integratzea eskatzen du ^{10,12,13}.

Gaitasun Kulturala garatzeko hezkuntza estrategiak

Ildo honetatik jarraituz, erizaintzako erakunde desberdinek ahalegin handiak egin dituzte gaitasun kulturalaren garapena sustatzeko. Estrategietako bat konpetentzia hori hezkuntzan txertatzea da erizaintzako ikasleen *curriculumaren* bitartez. Gaur egun, hainbat hezkuntza-programa diseinatu dira erizaintzako ikasleen kultura-gaitasuna sustatzeko, osasungintzan kulturarekiko sentsibilitate eta moldagarritasunaren garrantziari helduz ^{5,6,7,14}.

Funtsezko ikuspegi-takoko bat hezkuntza programetan kulturalki garrantzitsuak diren edukiak txertatzean datza; dimentsio kulturalak aztertzen dituzten moduluak, estereotipoei buruzko sentsibilizazio tailerrak edota komunitate ezberdinetako bizi-estiloen ulermena sustatzen dutenak. Horrez gain, kulturarteko komunikazio gaitasunak garatzeko irakasgaiak badaude, empatia eta errespetua bermatuz kultura aniztasunarekiko ^{6,7}.

Bestalde, jarduera praktikoagoak burutu daitezke, esaterako kulturalki anitzak diren inguruneetan edo atzerrian praktika klinikoak egitea, kultura-desberdintasunen eta antzekotasunen gaineko kontzientzia areagotzeko eta dauden sesgo zein aurreiritziak identifikatzeko ¹⁴.

Bukatzeko, beste baliabide pedagogiko bat simulazio jarduerak izan daitezke. Erizaintzako praktikan ohiko egoera kulturalak aurkezten dituzten simulazio interaktiboek bitartez esperientzia kliniko modukoa bizi ditzakete ikasleek. Honen bitartez, aldaketak espero dira eremu kognitibo, afektibo eta psikomotorean ezagutza, trebetasun, edota jarrera gaitasun berrien garapena bultzatzen dutenak ¹⁵.

Konpetentzia kulturala neurtzeko neurketa tresnak

Gaur egun osasun-profesionalen, erizainen eta erizaintzako ikasleen kultura-gaitasuna ebaluatzeko hainbat neurketa tresna daude eskuragarri marko teoriko desberdinen adierazleen arabera. Tresna horiek gaitasun kulturalaren dimentsio kognitibo, afektibo eta praktikoa maila ezberdinetan neur ditzakete. Izan ere, tresna horiek moldatu behar dira lurralde baten ezaugarri kulturaletara eta hizkuntzara, eta hortaz, herriz herri ebaluazio ikuspegiak alda daitezke ^{13,16}.

Literatura berrikusita, helburu honetarako erabil daitezkeen eskala batzuk honako hauek dira: Adimen Kulturalaren Eskala, Autoeraginkortasun Transkulturalaren Tresna, Osasun-profesionalen arteko konpetentzia kulturalaren prozesua kontrolatzeko inbentarioa, eta Kulturarteko Sentsibilitate Eskala.

2.2.-LANAREN JUSTIFIKAZIOA ETA GARRANTZIA

Erizaintzako hezkuntzan gaitasun kulturala integratzearen proposatzeko arrazoiak pazientean zentratutako arretaren garapenean laguntzea da, pazienteen balio, lehenetsun eta beharrekiko desberdintasunak identifikatu, errespetatu eta zuzentzen dituen ⁷.

Munduko biztanleriaren etengabeko aldaketa demografikoek fenomeno garrantzitsua suposatzen dute gizartean. Hain zuzen ere, Espainiako biztanleriaren hazkunde demografikoa arrazoiak bat atzerriko immigrazioa da. Espainiako Estatistika Institutu Nazionalaren arabera, 2022an, 478.990-koa izan zen immigrazio fluxua ¹⁷. Izan ere, urte berean, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatutako biztanleriaren %11,5 (253.038) atzerriko herrialde batean jaiotakoa zen. 2002.urtean erroldatuen %2,6-a (56.868) soilik zen atzerrikoa, hortaz, azken bi hamarkada hauetan %8,9-ko hazkundea egon da EAE-n ¹⁸. Azaldutako fenomeno demografikoek baldintzatzen dituzte gizarte jakin bateko biztanleen tamainaren osaera baina baita gizarte jakin horren dinamika eta identitatea. Etorkizuneko ikuspegi batean, Euskal Estatistika Erakundeak estimatzen du 2036.urterako fluxu migratorioa positiboki handituko dela, hortaz, osasun sistemak eta politikak prest egon behar dira aldaketa horiei aurre egiteko prestazio egokiak bermatuz ¹⁹.

Zehazki Erizaintzako Kode Deontologikoaren 4.artikuluak hurrengo adierazpena aipatzen du: *“Erizainak aitortzen du askatasuna eta berdintasuna duintasun eta eskubideetan gizaki guztiak partekatzen dituzten balioak direla... Beraz, Erizaina behartuta dago pertsona guztiak errespetu berarekin tratatzera, arraza, sexu, adin, erlijio, nazionalitate, iritzi politiko, gizarte-egoera edo osasun-egoera bereizi gabe”* ²⁰. Kode Deontologikoak lanbide-etika-arau orokorrak barne hartzen dituela ulerturik, identifikatu egiten da erizaintzako profesionalek kultura gaitasuna lantzen duen formakuntza jasotzea, kulturalki desberdina den talde edo komunitate baten beharrak artatzeko.

Alde batetik, testuinguru kulturala kontuan ez hartzeak desberdintasunak, estereotipo negatiboak eta orokortze homogeenak sor ditzake. Osasun- eta gizarte-arreta-esparruetan, pazientearen betetze/atxikimendu eskasa, profesionalaren eta pazientearen arteko komunikazio eza, jasotako tratamenduarekiko asebetetze puntuazio baxua edo profesionalarekiko eta osasun-sistemarenganako mesfidantza eragin dezake^{5,6,21}.

Bestalde, ebidentziak erakusten du kulturalki egokitutako esku-hartzeek emaitza klinikoak eta pazientearen sistemarekiko gogobetetasuna hobetzen dituztela. Ikuspegi ekonomikotik, lan-ingurune osasuntsu eta seguruek onura ekonomikoak eragiten dituzte erakundeentzat, absentismoa, produktibitatearen galera, erakundearen osasun-laguntzaren kostuak eta erakundearen aurkako gertakarien ondoriozko gastuak murriztuz⁵⁻⁷.

Hortaz, kulturalki sentikorra eta kompetentea izatea beharrezkoa da ez soilik kultura ezberdineko komunitateko pazientei erizaintza-praktika integralak eskaintzeko, baina baita erizaintza diziplinaren berezko zeregina babesteko ere, hau da, tokiko, nazio zein nazioarteko mailan populazioaren osasunean eragina duten politikak garatzeko eta defendatzeko⁶.

Hori dela eta, erizaintza graduiko ikasleen artean kultur aniztasunaren inguruko edukiak argi eta garbi sustatu behar dira kompetentzia kulturala garatzeko. Hala ere, nahiz eta marko potentzialen eta ekimen arrakastatsuen garapena egon den gaitasun kulturala behar bezala sustatzeko, literaturan hutsune kezkarria dago irakaskuntza eta estrategia pedagogikoen inguruan⁵⁻⁷. Hori dela, literatura errebisio honen helburua izango da erizaintzako ikasleen kultura-gaitasunak sustatzeko hezkuntza-programa ezberdinen eraginkortasuna aztertzea.

3.-HELBURUA

Erizaintza graduko ikasleengan gaitasun kulturala sustatzen duten hezkuntza esku-hartze ezberdinen eraginkortasuna aztertzea du helburu gisa.

4.-METODOLOGIA ATALA

4.1.-DISEINU MOTA

GrAL honen helburuari erantzuteko literatura errebisio kritikoa burutu zen. Izan ere, literatura errebisio honen bilaketa estrategia eta metodologiaren garapena PRISMA adierazpenen arabera bideratu zen²².

4.2.-BILAKETA ESTRATEGIA

GrAL hau literatura errebisio sistematiko batean oinarritzen da non artikuluko zientifikoaren analisiaren bidez, azterketa-proposamen bati (PICO galdera) erantzuten zaion. Proposamen hau erizaintzako ikasleengan (P) gaitasun kulturala (O) sustatzeko hezkuntza esku-hartze ezberdinen (I) eraginkortasuna aztertzean datza.

DeCS tresna erabiliz, honako funtsezko kontzeptu hauen tesauru hiztegi terminologiko kontrolatua bildu zen: “Erizaintzako ikaslea”, “Heziketa”, “Erizaintza Transkulturala” eta “Gaitasun Kulturala”.

Horren ostean, tesaurua adierazten zuten deskribatzaile espezifikokoak ekuazio batean konbinatuz erabili ziren datu-base ezberdinetan eta beste iturri batzuetan bermatuz ikerketa-galderari erantzuten zioten literatura kokatzen zutela. Hura aztertzeko ikus 1.eranskina: kontzeptu-taula. Zehazki bilaketa ekuazioak eraikitzeke erabili ziren hurrengo deskriptoreak ingelesez: “Students, Nursing”, “Nursing students”, “Transcultural Nursing”, “Cultural Nursing”, “Cultural Competency” eta “Cultural Sensitivity”.

Identifikatutako bilaketa-termino horiek bilaketa ekuazio baten bitartez hurrengo datu-baseetan aztertu ziren: Medline (Ovid), PsychINFO, Cochrane, CINAHL, CUIDEN eta EMBASE. Deskriptoreak batez ere izenburuan, laburpenean edo bien konbinazioan bilatu ziren, “AND” eta “OR” eragile boolearrak erabiliz.

Eskuz ere bilaketa bat egin zen ere. Erizaintzako hezkuntzaren eta Erizaintza Transkulturalaren arloan eragin handia duten bi aldizkari aukeratzean izan zen estrategia: Nurse Education Today eta Journal of Transcultural Nursing. Ikus 2.eranskina: Bilaketa-taula.

Bukatzeko, ebidentzia zientifikoan oinarritutako 2 erakundeetan bilaketak egin ziren, hots, Ontarioko Erizain Erregistratuen Elkarte (RNAO, ingelesez) eta Osasun eta Zainketa Bikaintasunerako Institutu Nazionala (NICE, ingelesez). Bi elkarte hauek izan ziren aukeratuak ahalegina egiten baitute ebidentzia praktika klinikora hurbiltzeko, Praktika Egokien Gidak (GBP, ingelesez) garatuz, argitaratuz eta eguneratuz. Ikus 2.eranskina: Bilaketa-taula.

4.3.-BARNE-KANPORATZE IRIZPIDEAK

Hona hemen literatura errebisioan ezarritako barne- eta kanporatze-irizpideak.

Barne-irizpideak:

Lagina: Erizaintza diziplinaren inguruko azterlan bat denez, erizaintza gradu eta gradu osteko ikasleez osatu zen lagina. Ontarioko Erizain Erregistratu Elkartearen (RNAO) jarraibidei dagokionez, identifikatu egin da konpetentzia kulturala hezkuntza eta formakuntza ikasketa planoaren hasieratik barneratzea onuragarria dela gaitasun kulturala eskuratzeko ⁶. Literatura eskasa dela eta, ez zen zehaztu ikasleen gradu maila espezifiko bat, hortaz, lagina erizaintza gradu maila ezberdineko ikasleez osatuta dago. Izan ere, onartu egin zen ere laginaren batean erizaintza gradu osteko (masterra/doktoregoa) ikasleak agertuz gero.

Emaitzak: Erizaintzako ikasleen konpetentzia kulturalarekiko eskuratutako autoeraginkortasuna, trebetasuna, ezagutza, sentsibilitatea edota enpatia mailen areagopena.

Argitaratze-urtea: 2015-tik 2023-rako (bi urte horiek barneratuta) baremoa ezarri zen. Informazio eta datuak ahalik eta eguneratuenak lor zitezen, 8 urteko denbora-tartea bermatu egin zen irizpide gisa artikuluen hautaketa egiteko orduan.

Artikulu mota: Ikerketa objektua modu kuantitatiboan aztertzen duten artikulua barneratu ziren. Hortaz, ausazko ikerketa kontrolatuak, ikerketa kuasi-esperimentalak eta pre-esperimentalak barneratu ziren. Egokitzen hartu zen baita metodo mistoen azterlanen ikerketa kuantitatiboak ere.

Hizkuntza: Ingelesez eta gazteleraz eginiko azterlanak barneratu ziren egilearen hizkuntza-mailaren arabera.

Honen harira, *esklusio irizpideei* dagokienez, barneratze irizpideekin bat ez datozen artikulua guztiak baztertu ziren.

Batik bat, behin barneratze eta kanporatze-irizpideak bermatuta eta deskriptoreak definituta zeudela bilaketa-ekuazioa arestian aipatutako datu baseetan eta aldizkarietan sartu zen non “Argitaratze-Data: 2015-2023” filtroa gehitu zitzaten.

Ondorioz, bilaketa prozesuaren bitartez **1637** artikulua identifikatu ziren. Izan ere, Mendeley Reference software-a erabili zen bilaketaren emaitzen antolaketa kudeatzeko eta bikoiztutako zitazioak identifikatzen laguntzeko.

4.4 HAUTAKETA PROZESUA

Behin bilaketa-ekuazioa datu-base bakoitzean indexaturik, lortu ziren artikulu baliagarrien eta ez-baliagarrien sailkapena egin zen. Baliagarriak izan zitezkeen artikulu zientifikoek irakurketa kritikoa egin zen artikulu horien kalitatea bermatzeko eta ikerketa-objektuari erantzuten ziotela baieztatzeko. Ikus 3. eta 4. eranskina: Irakurketa kritikorako tresnak Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia.

Irakurketa kritikoa behin buruturik 16 artikulu izan ziren aukeratuak literatura errebisioaren garapenarako. Prozesu honen irudikapen osoa ikusteko jo 5.eranskina: Fluxu-diagrama.

4.5.-DATA ATERATZEA

Azkenik, aukeraturiko 16 artikulu horien datu klabeak bildu ziren laburpen-taula batean. Taula horretan, artikulu bakoitzaren egilea, helburua, disien mota, lagina, neurketa tresna eta emaitza nagusiak isladatzen dira. Ikus 6.eranskina: laburpen-taula.

4.6.-ANALISI PROZESUA

Laburpen-taulan irudikatutako 16 artikuluen sintesi narratiboaren bitartez gaitasun kulturala neurtzeko eta hezkuntza interbentzio ezberdinak garatzeko patroiak eta laginaren zein beste aldagaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertu ziren. Hori dela eta, lortutako emaitzak kategorizatu ziren identifikatutako patroi horien bidez. (Ikus 7.eranskina: Zuhaitz-kategoriala.)

5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA


16 artikuluen analisiaren bitartez, erizaintza graduko ikasleek gaitasun kulturala garatzeko hiru hezkuntza interbentzio ezberdin identifikatu ziren: simulazio interaktiboen programak, murgiltze programak, eta Erizaintza Transkulturean oinarrituriko ikastaroak. Horrez gain, artikuluek gaitasun kulturala konstruktuz ezberdinen bitartez neurtzen zutela identifikatu zen. Beraz, emaitzen analisia kulturarekiko ezagutzaren, trebetasunaren, sentsibilitatearen, autoeraginkortasunaren eta enpatiaren arabera sailkatu dira.

Hori dela eta, hona hemen ikerketen ezaugarri soziodemografikoen deskribapena eta azterturiko emaitzen azalpena jasotzen duen atala.

5.1.-IKERKETEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOEN DESKRIBAPENA

Aukeratutako artikuluen azterketatik lortutako ezaugarri soziodemografikoak deskribatzen dira jarraian.

Diseinu mota



Lehenik eta behin, nahiz eta aurkeztutako gaia interes publiko eta sozial handia izan, hezkuntza-esku-hartzeen eraginkortasunari buruzko ikerketa kuantitatiboa urria zen. Hautatutako artikuluen % 31,3 (n=5) diseinu pre-esperimentalak ziren, non esku-hartzea talde esperimental bati soilik zuzenduta zegoen ²³⁻²⁷.

1.grafikoa: Ikerketetan identifikatutako diseinu mota


Azterketen %25 (n=4), aldiz, ikerketa kuasi-esperimentalak ziren ²⁸⁻³¹. Bestetik, ausazko gurutzatutako kontrolatutako azterketa bakarra bildu zen (n=1 / % 6,3) non, parte-hartzaileek interbentzio desberdinak jasotzen dituzte denbora-tarte desberdinetan, tratamendu horiek jasotzen dituzten ordena ausaz esleitzen direlarik ³². Inklusio- eta kalitate-irizpideak betetzen zituzten ausazko azterketa kontrolatua zuten diseinu motako 2 (% 12,5) barneratu ziren ^{33,34}.

Azkenik, azterketen % 25ak (n=4) metodo mistoen diseinuari buruzkoak ziren. Diseinu hau erabili zuten ikerketek azterketa kualitatibo eta kuantitatiboen konbinazioa burutu zuten. Hain zuzen ere, berrikuspen honetarako, azterketa kuantitatiboen emaitzak aztertu ziren soilik, diseinu pre-esperimentalak eusten baitzuten ³⁵⁻³⁸. Ezin izan zen diseinu motaren erabateko homogeneotasuna bermatu, beste artikulua batzuek ez baitzituzten inklusio-irizpideak errespetatzen eta ebidentzia kalitate baxua erakutsi baitzuten (Ikus 1. grafikoa: Ikerketetan identifikatutako diseinu mota).

Hautatutakoen 14 artikuluek gaitasun kulturala neurtu zuten *pretest* eta *posttest*^{23-28,31-38}. Aldiz, 2 artikuluek egindako ikerketek kultur gaitasuna *posttest* neurtu zuen, hau da, esku-hartzearen ondoren^{29,30}. *Posttest* neurketak interbentzioa burutu eta egun batzuetara edota pare bat asteera egin ziren. Aldiz, ikerketa batek, interbentzioa burutu eta 12-14 hilabetera egin zuen neurketa hura²⁹.

Bestalde, aztertutako artikuluek herrialde ezberdinetakoak ziren. Gehienak AEBn burutu ziren (n=7), %43,8 osatzen dutenak^{23,24,25,26,29,37,38}. %18,8 (n=3) Turkian burutu ziren^{30,31,33} eta %12,5 (n=2) Txinan^{30,34}. Azkenik, gainerako %25,2 Japonian (n=1)²⁷, Hego Korean (n=1)²⁸, Israelen (n=1)³⁴ eta Australian (n=1)³⁵ egin ziren. Ikus 2. grafikoa.

Artikuluen herrialde jatorria



2.grafikoa: Artikuluen sailkapena argitaratutako herrialde jatorriaren arabera.

Laginarene ezaugarriei dagokienez, aztertu zen populazioaren irudi argia lortzeko asmoz ezaugarrien sailkapena egitea erabaki zen. Jarraian azaltzen denaren irudikapen grafikoa lortzeko, ikus 1.Taula: Lagina osatzen duen populazioaren ezaugarri demografikoaren adierazpena.

Alde batetik, aztertutako ikerketek estali duten populazioa homogeneizatzeko asmotan 3 azpitaldetan banatu zen (<=50; 50-100; =>100) osatzen zuten tamainaren arabera. Turkelson C et al.,-ek guztira 26 gradu osteko erizaintzako ikasleek osatutako lagin txikiena zuen²⁴. Bestalde, lagin luzeena Everson N et al.-ek egindako ikerketan aztertu zuten, guztira 460 erizaintza graduko ikasleek osatzen baizuten³⁵.

Bestalde, intereseko biztanleria Erizaintza graduko ikasleak ziren, beraz, ikasturte akademikoak aldagai bezala hartzea garrantzitsua zela kontsideratu zen, ikasturte akademikoak gaitasun mailaren eskuratzean izan dezakeen eragina dela eta. Berrikuspen honetan, 10 ikerketek burutu zuten esku-hartzea 3. eta 4. mailako ikasleengan^{23,27-29,31-33,35,37,38}. Interbentzioa egiteko gutxien erabili den ikasturtea (n=2) lehenengo ikasturte akademikoa izan zen^{32,37}.

Generoa beste aldagai demografiko gisa definitu zen. Aukeratutako 16 artikuluen laginetan, genero nagusia emakumezkoa izan zen; hain zuzen ere, parte-hartzaileen %50 baino gehiago emakumeak ziren²³⁻³⁸. Aitzitik, gizonezkoen ordezkariak proportzio nahiko txikiagoan zegoen. Aldagai hau Erizaintzako Eskola gehien testuinguruarekin bat dator, erizaintzako diziplina nagusiki emakumezkoena izaten jarraitzen duela adieraziz.

Kontuan hartu zen beste aldagai demografiko bat laginen osaera etnikoa da. Artikulu gehienek (n=12) parte-hartzaileen jatorri etnikoa adierazi zituzten, horietatik 9 ikerketen lagina etnikoki homogenea zen ^{23-25,27-29,35,37,38} eta 4 ikerketek baino ez etnikoki heterogeneoak ziren ^{26,32,34,36} (sailkapen hori ez da estatistikaren emaitza, baizik eta artikuluek adierazitako zenbakiaren arabera).

Hala ere, ikerketen arteko laginak jatorri etniko ezberdinei zegokien; kaukasikoak (n=7)^{23-26,29,37,38}, asiarrak (n=4)^{27,28,32,36} eta australiarrak (n=1)³⁵. Bazeuden hispaniar edota afrika-amerikarrak proportzio minoritario batean osatzen zuten etniak. Bestetik, 3 ikerketek ez zuten laginaren osaera etnikoa deskribatu ^{30,31,33}.

Azkenik, kategorizatu egin zen beste aldagai demografiko bat parte-hartzaileen adina da. Batez besteko adina 25 urtetik beherakoa zen 11 artikuluetan ^{23,26-29,31,33,35-38}. Aldiz, 3 ikerketen laginak izan ziren bakarrak 25 urtetik gorako batez besteko adinarekin osatuta zeudenak ^{24,25,34}. Bi azterlanek ordea, ez zuten parte-hartzaileen adina zehaztu ^{30,32}.


	Tamaina			Ikasturte akademikoa					Generoa			Osaera etnikoa		Adina (media)	
	<=50	50-100	>=100	1.	2.	3.	4.	Msc edo PhD*	E** > %50	G** > %50	Hmg***	Htg***	<=25	>25	
Shin M et al., 2023 ²⁸ .		X				X	X		X		X		X		
Fung JTC et al., 2023 ³² .		X		X	X	X	X	X	X			X	?****		
Fioravanti MA et al., 2018 ²³ .			X			X			X		X		X		
Turkelson C et al., 2021 ²⁴ .	X							X	X		X			X	
Nimmo C et al., 2021 ²⁵ .	X							X	X		X			X	
Ozkara 2019 ²⁶ .		X		?					X			X	X		
Everson N 2015 ³⁵ .			X			X			X		X		X		
Alexander-Ruff JH et al., 2021 ²⁹ .		X				X			X		X		X		
Chan EA et al., 2018 ³⁶ .		X		?					?			X	X		
Kohlbray P 2016 ³⁷ .			X	X	X	X	X		X		X		X		
Ozaydin et al., 2021 ³³ .		X					X		X		?		X		
Young J et al., 2020 ³⁸ .			X				X		X		X		X		
Hua J et al., 2023 ²⁷ .			X		X	X	X		?		X		X		
Kaçan C et al., 2020 ³⁰ .			X		X				X		?		?		
Çingol et al., 2021 ³¹ .			X				X		X		?		X		
Kula Y et al., 2021 ³² .		X			X				X			X		X	

1.Taula: lagina osatzen duen populazioaren ezaugarri demografikoen adierazpena (*Msc = Masterra / PhD: Doktoregoa.; ** E= Emakumezkoak / G= Gizonezkoak; *** Hmg = Homogeneoa/ Htg = Heterogeneoa; ****? = artikuluek ez du zehazten ezaugarri hori.)

5.2 HEZKUNTZA INTERBENTZIO MOTAK

Berrikuspen sistematikoaren bitartez, hiru estrategia pedagogiko nagusi identifikatu ziren: simulazio programak (n=7)^{23-26,28,32,35}, murgiltze programak (n=4)^{29,33,36,37} eta Erizaintza Transkulturealean (ETK) oinarritutako irakasgaiak (n=5)^{27,30,31,34,38}. Ikus 3.grafikoa: Hezkuntza interbentzio motak.

Simulazio-programak egoera zehatz baterako eszenatokiak diseinatzean datza. Modu honetan, parte-hartzailea erabakiak eta neurri ezberdinak hartzera bultzatzen duen testuinguru kliniko baten irudi errealista sortzea posible da¹⁵. Estrategi mota honetan garrantzitsua da testuinguruaren fideltasun fisikoa, kontzeptuala eta psikologikoa maximizatzea, ikaslea ahalik eta esperientzia errealistean murgil dadin¹⁵.



3.grafikoa: Hezkuntza interbentzio motak.
(ETK= "Erizaintza Transkulturealeko" irakasgaiak).

Fideltasun handiko simulazioa 5 ikerketetan erabili zen, paziente estandarizatuak erabiltzen baizituzten testuinguru fisiko errealista bat sortzeko^{23-26,28}. Paziente estandarizatuaren terminoak gaixo bat modu errealista eta errepikagarrian irudikatzekeo trebatu izan den pertsonari egiten dio erreferentzia, beraz, haien portaera "estandarizatu" dela deritzogu³⁹. Kasu honetan, ikerketen paziente estandarizatuak kultura minoritarioak eta anitzak errepresentatzen zituzten pazienteak eta haien familiako kideak ziren. Aldiz, beste ikerketa batek ez zituen paziente estandarizatuak erabili, aldiz, 3D-ko bideo bat erabili zen estimulu sensorial ezberdinez baliatuz³⁵. Beste batek, simulazioa online-ko plataforma baten bidez egin zen eta bertan ikasleek birtualki elkarreragiten zuten aurkezten zitzaizkien testuinguruan, erabakiak hartzeko gai izan zitezkeen³².

Simulazioa estrategia pedagogiko gisa erabili zuten azterketetatik, bostek simulazioa diseinatzeko International Nursing Association of Clinical Simulation Learning-ren (INACSL) jarraibideak erreferentzia gisa hartu zuten^{23-26,28}. Jarraibide horiek plangintza erabakigarria eta sistematikoa eta aldi berean malgua zein ziklikoa eskaintzen dute, garrantzitsua dena uniformetasuna programa mota hauetan ezartzeko.

Kultura-gaitasuna garatzeko identifikatu zen beste estrategia pedagogiko bat murgiltze-programak ziren, non partaideek atzerriko zein tokiko aniztasun kultureko ingurune eta komunitatetan murgildu ziren. Identifikatu ziren programa horiek epe laburrekoak ziren, iraupena aste batetik hirura bitartekoa izanda^{29,33,36,37}. Zehazki, ikerketa batzuen partaideek murgiltze-programa burutu zuten elkartruke baten bidez atzerriko herrialde batean eta beste batzuk tokiko herrialdean aniztasun kultural handiko erakundeetan.

Identifikatutako azken estrategia konbentzionalena da, Erizaintza Transkulturalen oinarritutako saioak ematea (n=5)^{27,30,31,34,38}. Landutako gai nagusiak hurrengoak izan ziren: sesgoen, arrazaren, etniaren, kulturaren eta egoera sozioekonomikoaren kontzeptuetan oinarritzen den ikuspegi transkulturala. Hainbat estrategia erabili ziren kultur edukiak joratzeko, hala nola: PowerPoint aurkezpenak, film laburrak, artikuluen irakurketak, talde-lanak, role-playing, joko interaktiboak, kasu-azterketak eta hizlari gonbidatuak. Ikerketetan bermatutako saioen iraupena 90-120 minutu bitartekoa zen.

5.3.-EMAITZA NAGUSIAK

Hurrengo atalean bildutako ikerketen analisi konparatiboa burutuko da kulturarekiko konstruktio ezberdinen arabera, estrategia ezberdinen eraginkortasuna baloratzeko asmoz. **Ikus 2.taula.**

	Konpetentzia Kulturala aztertzeako emaitzak				
	K.Ezagutza	K.Trebetasuna	K.Autoeraginkortasuna	K.Sentsibilitatea	K.Enpatia
Shin M et al., 2023 ²⁸ .	X	X		X	X
Fung JTC et al., 2023 ³² .	X	X			
Fioravanti MA et al., 2018 ²³ .		X		X	
Turkelson C et al., 2021 ²⁴ .			X		X
Nimmo C et al., 2021 ²⁵ .			X		
Ozkara E 2019 ²⁶ .			X		
Everson N 2015 ³⁵ .					X
Alexander-Ruff JH et al., 2021 ²⁹ .			X		
Chan EA et al., 2018 ³⁶ .	X	X			
Kohlbray P 2016 ³⁷ .	X	X			
Ozaydin et al., 2021 ³³ .				X	
Young J et al., 2020 ³⁸ .			X		
Hua J et al., 2023 ²⁷ .				X	
Kaçan C et al., 2020 ³⁰ .				X	X
Çingöl et al., 2021 ³¹ .				X	X
Kula Y et al., 2021 ³² .	X	X			

2.taula: Konpetentzia kulturala aztertzeako artikuluko bakoitzak neurtutako konstruktioa.

5.3.1.-KULTURAREKIKO EZAGUTZA

Ikerketa zientifikoetako 5 artikuluko kulturarekiko ezagutza gaitasun kulturalaren adierazle gisa erabili zuten^{28,32,34,36,37}. Konstruktio honen bitartez, espero da bilaketa-prozesu baten bidez parte hartzaileek ezagutzea kulturalki anitza den pazienteak munduarekiko duen ikuspegia¹⁰. Ikerketek konstruktioa neurtzeko eskala ezberdinen bitartez neurtu zuten (eskala balioztatuak): *Clinical Cultural Competency Questionnaire (CCCQ)*³⁴, *Inventory for Assessing the Process of Cultural Competence among Healthcare Professionals-Student Version (IAPCC-SV)*^{32,37}, *Korean Cultural Competency Scale (KCCS)*²⁸, *Cultural Intelligence Scale (CQ)*³⁶.

Chan EA et al.,-ren talde esperimentalak, bi asteko kultura-trukea burutu zuenak, kultur ezagutza estatistikoki handitzea lortu zuen (TE→ M 3.58 vs 4.54/ $p<0.001$) CQ galdetegia erabiliz ³⁶. Era berean, Kohlby P-ren ikerketako parte hartzaileek iraupen antzeko atzerriko osasun zerbitzuko murgiltze-programaren bidez emaitza estatistiko esanguratsua lortu zuten baina IAPCC-SV erabilia (TE→ M 2.9 vs 3.08/ $p=0.001$) ³⁷. Bi ikerketa horiek eskala neurketa ezberdinak erabili zuten zuten emaitzen konparazioa egitea zaila da. Hala ere, elkartrukearen aurretik kultura alderdiei buruzko prestakuntza teorikoa jaso izanak Chan EA et al.,-ren emaitzetan inkremento handiago ekar zezakeen. Gainera, Chan EA-ren ikerketaren talde etnikoki heterogeneoak, Kohlby P-ren taldeak ez bezala, jarduerak modu bateratuan egin zituen, eta horrek osasun-sistemen eta erizaintza-funtzioen arteko antzekotasun eta desberdintasunei buruzko eztabaiden zein alderdi kulturalen ezagutzaren suspertze handiagoa eragin zitekeen taldearen barnean ^{36,37}.

Ildo beretik jarraituz, prestakuntza teorikoa funtsezkoa izan zen Kula Y et al.,-ren ikerketan, zeinetan kultura-ezagutza, CCCQ galdetegiarenren bitartez, Erizaintza Transkulturalaren modulu teorikoak landu zituen³⁴. Esku-hartze taldeak konstruktuko horren igoera lortu zuen (TE→ M 3.04 vs 3.66), kontrol taldeak bestelako modulu teorikoak jasota (KT→ M 2.95 vs 3.34) igoera txikiagoa izan zuen bitartean (bi taldeen arteko alde estatistikoa $p=0.024$). Gainontzeko azterlanekin alderatuz, hezkuntza interbentzioa 120 minutu iraun zuen bakarrik, nahikoa izan zena kulturarekiko ezagutza suspertzeko ³⁴.

Bestetik, Fung JTC et al. eta Kohlby P-ren ikerketek IAPCC-SV neurketa eskala erabilia emaitza desberdinak erakutsi zituzten ^{32,37}. Fung JTC-ren ikerketak simulazio birtuala eta Problemetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) konbinatuz, talde esperimentalak ez zuen alde esanguratsurik lortu *pretest* eta *posttest* artean (TE1→ $p=0.201$) ³². Izan ere, paziente estandarizatuarekin garatutako simulazio-programa erabili zuen Shin M et al., (2023)-ren ikerketak, ez zuen konstruktuko honen inguruan emaitza esanguratsurik lortu esku-hartzearen eta kontrol-taldearen artean ($p=0,099$) ²⁸. Kontrol taldeak ez zuen simulazioan parte hartu baina eduki kultural teorikoa talde esperimentala bezala jaso zuen. Beraz, eduki teoriko horrek zegoeneko bi taldeen ezagutza kulturala suspertu ahal izan zuen simulazioa burutu aurretik. Bestetik, gainontzeko ikerketekin alderatuz, bi ikerketa hauen lagina nahiko homogeneoa zen ^{28,32}. Homogeneotasun horrek eta simulazioen berezko kultura aniztasunarekiko espozizioaren murrizpenak, kultura ezberdineko ezagutzen eskuratze prozesua zailtzea inplikatu dezake.

Kula Y-ren diseinuak (ausazko kontrol-azterketa) ahalbidetzen du sesgoen eta aldagai nahasgarrien kontrol eraginkorragoa. Taldeen aleatorizazioaren bidez, taldeen artean ikusitako emaitzen desberdintasunak tratamenduari, eta ez beste edozein faktoreri, zor zaiola bermatzen baita. Honek emaitzen barne-balioaren handiagoa erakusten du Kohlby P eta Chan EA-ren ikerketekin alderatuta, zeinek diseinu pre-esperimentalaren bidez lortutako emaitzak ez baitira hain fidagarriak kontrol esperimentalaren faltagatik ^{34,36,37}.

5.3.2.- KULTURAREKIKO TREBETASUNA

Campinha-Bacote-ren ereduari dagokionez kulturarekiko trebetasunak paziente bakoitzaren beharrak eta tratamendu egokia zehazten laguntzen duten datu kulturalak ebaluatu, identifikatu eta biltzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia^{10,12}. Horrela, literatura berrikuspen honetako 6 ikerketek konstruktua hura gaitasun kulturalaren adierazle gisa erabili zuten baina neurketa eskala ezberdinak erabiliz: *The Cultural Competence Assessment (CCA)*²³, *CCCQ*³⁴, *IAPCC-SV*^{32,37}, *KCCS*²⁸, *CQ*³⁶.

Errebisioko 2 azterlanek ,paziente estandarizatuen bidezko fideltasun handiko simulazio programak garatu zituzten antzeko laginetan^{23,28}. Shin M et al., -ren ikerketan, *KCCS* eskala erabili zelarik, talde esperimentalak familia arabiar paziente estandarizatuarekin elkarreginez, igoera estatistikoki esanguratsua lortu zuen, kontrol taldeak soilik eduki teorikoa jaso zuelarik ($p < 0,001$, \rightarrow taldeen artean)²⁸. Fioravanti MA et al.,-ren talde esperimentalak interbentzioko *pretest* eta *posttest* emaitzen arteko alde nabarmena lortu zuen ($p < 0,001$) ere²³. Hala ere, aipatzekoa da Shin M-ren ikerketaren inklusio irizpidea zela parte hartzaileak "Multikulturalismoa eta Erizaintza" hautazko kurtsuan matrikulatuak egotea, aldiz Fioravanti MA-ren interbentzioa derrigorrezko osasun mentaleko ikasgaiaren barne burutu zen. Honek bi inplikazio nagusi ditu, batetik, Shin M-ren taldeak kultura gaitasunarekiko aurretiko jarrera eta interesa positiboagoa izatea, haien aukera izan baitazen ikasgai horretan matrikulatuak egotea; bestetik, Fioravanti MA-ren ikerketak erakusten du posible izan daitekeela kultur edukiak diziplinako beste edozein ikastaroaren barne txertatzea.

Bestalde, *IAPCC-SV* eskala erabilia, Fung JTC et al.,-ek ($TE1 \rightarrow p=0,012$ eta $TE2 \rightarrow p=0,001$) eta Kholbry P-k ($TE \rightarrow p=0,005$) emaitza positiboak igorri zituzten^{32,37}. Beraz, bi estrategia pedagogikoak baliagarriak dirudite kulturarekiko trebetasuna eskuratzeko. Hala ere, Fung JTC-ren ikerketak erabilitako ausazko gurutzatutako diseinu motak ahalbidetu zuen azterketa bat egitea bi interbentziorekin (Simulazio Birtuala, SB; Problemetan Oinarritutako Ikaskuntza, POI)³². Ondorioz, tratamendu ezberdinen efektuak zuzenean alderatzeko aukera eman zuen eta partaide bakoitzak bere kontrol gisa jokatzeko zuzenez, banakako desberdintasunak eta sesgoak kontrolatzeko eraginkorragoa da. Diseinu mota honen emaitzen barne-baliozkotasuna handiagoa izan ohi bada ere, baliteke washout aldia nahikoa ez izana, emaitzen fidagarritasuna oztopatuz.

Aitzitik, Kholbry P-ren estrategia berdina erabilia, Chan EA.,-ren ikerketan, esku-hartze taldearen igoera ($TE \rightarrow M 5,13$ vs $5,44$) ez zen estatistikoki nahikoa izan ($p=0,133$)³⁶. Desberdintasun hori izan zitekeen, batez ere, Kholbry P-ren taldeak ez bezala, Chan EA taldeak ingurune klinikoetan aktiboki parte hartu ez zuelako, beraz, ez zuten pazienteekin elkarregiteko aukerarik izan. Era berean, konstruktua honek domeinu praktikoago eta/edo afektiboago bat jorratzen duenez, logikoa da Kula Y et al.-en ikerketan ikasgai teorikoak emaitza esanguratsurik ez izatea talde esperimentalaren eta kontrolaren artean ($p=0,07$)³⁴.

5.3.3 KULTURAREKIKO AUTOERAGINKORTASUNA

Jeffreys-en (2016) *Cultural Competence and Confidence* ereduak defendatzen du autoeraginkortasun sendoak konpromisoa, motibazioa eta kultura arteko trebetasunen errendimendua dakarrela, kulturalki kongruentea den arreta indibiduoari eskaintzearen ²⁶. Berrikuspeneko ikerketetatik bost artikuluk autoeraginkortasun kulturala neurtu zuten neurketa tresna berdinen bidez: *Transcultural Self-Efficacy Tool (TSET)* ^{24-26,29,38}. Izan ere, dimentsio kognitiboa, praktikoa eta afektiboa kontuan hartu dira kulturarekiko autoeraginkortasun horren adierazle gisa.

Domeinu kognitiboari dagokionez, norberak balio eta arau kulturei buruzko informazioa ulertzeko eta prozesatzeko duen gaitasunaren pertzepzioa ebaluatzen duenak, honako emaitza hauek izan zituen. Talde esperimentalaren *pretest* eta *posttest* emaitzen artean, Ozkara E-k (M 7.3 vs 8.33/ $p=0.003$) eta Turkelson C eta Nimmo C-k (M 6.5 vs 7.4 / $p=0.005$) antzeko igoera adierazi zuten paziente estandarizatuak baliatuz simulazio programen bidez ²⁴⁻²⁶. Hala ere, azken bi ikerketen lagina askoz txikiagoa eta homogeneoagoa da, emaitzen orokortzea zailtzen duenak ^{24,25}.

Bestalde, Young J et al.,-k arrazak, etniak, kulturak eta egoera sozioekonomikoak gizarte-espektoaren barnean duten eraginari buruzko eduki teorikoak jorratu zituen norberaren kontzientzia suspertzen saiatzeko ³⁸. Beraz, alderdi kognitiboan inkrementurik (TE → M 6.7 vs 8.1/ $p<0.001$) handiena lortu zuen gainontzeko ikerketekin alderatuz. Izan ere, lagina handiena erabiltzen du aurreko 3 artikuluekin alderatuta, biztanleriaren adierazgarriagoak bihurtuz ^{24-26,38}. Horrek iradokitzen du irakaskuntza teorikoa pedagogikoki eraginkorra dela informazioa prozesatzeko eta ezagutzak azkar eta erraz eskuratzeko. Aitzitik, simulazio programetan formakuntza teorikorik ez egoteak gizabanakoak kultura ezberdinei buruzko ezagutzak eskuratzeko duen gaitasunaz duen pertzepzioa gutxitu dezake.

Azpieskala praktikoari dagokionez, gizabanakoak kulturalki anitza diren egoeretara egokitzeko duen autoeraginkortasuna neurtzen duenak, puntuazio altuena lortzen du Alexander-Ruff WH et al.,-ren ikerketan murgiltze programaren bidez ²⁹. Talde esperimentalak kontrol taldeak (ez du elkartrukerik egiten) baino puntuazio handiagoa lortu zuen (TE (M 9,18) vs KT (M 6,95)/ $p<0,001$). Hala ere, ikerlan horren emaitzen fidagarritasuna txikia da, emaitzak soilik *posttest* aztertu zirelako, eta beraz, ez zelako berretsi aurretizko alde nabarmenik zegoen taldeen artean.

Izan ere, interbentzioaren efektua burutu eta 12-14 hilabete ondoren neurtu zen, gainontzeko ikerketek egun batzuk edo aste pare batzuetara egin zuten bitartean, denbora aldagai-nahasgarri gisa agerian utziz. Bestalde, simulazio-programek, errealismo txikiagoa izan arren, aukera hori ere eskaintzen dute, eta horregatik Ozkara E-ren (TE→ 7,61 vs 8,33/ $p=0,019$) eta Turkelson C-ren (TE→ 6,1 vs 7,4/ $p=0,000$) talde esperimentalek ere emaitza esanguratsuak eman zituzten ²⁴⁻²⁶.

Azkenik, 5 ikerketek bat datoz domeinu afektiboak gainerako domeinuekin alderatuta lortu zituena puntuazio basal altuena eta hori dela eta, hazkunde aldea ez zen hain nabaria^{24-26, 29,38}. Ikerlan bateko kulturartekotasunari erreferentzia nagusiko hainbat pertsonaien gonbidapena onuragarria izan zitekeen, haien esperientziak gizabanakoengan eragin emozionala izan zezaketelako ($p < 0,001$)³⁸. Bestalde, simulazio edo murgiltze programak burutu zituzten ikerketek emaitza positiboak izan zituzten ere, inplikatzeko baitute parte hartzaileak emozionalki ezezagun diren egoeretara egokitzea eta errespetuzko harreman terapeutikoak eraikitzea^{24-26,29}.

5.3.4 KULTURAREKIKO SENTSIBILITATEA

Kultura-sentsibilitatea arau, balio, sinesmen, jokabide eta kultura-jatorri ezberdinetako gizabanakoen eta taldeen arteko desberdintasunak ulertzeko eta errespetatzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia¹⁰. Horrela, 6 artikuluek konstruktua hau eskala hauen bidez aztertzen dute: *Intercultural sensitivity scale (ISS)*^{27,30, 31, 33}, *CCA*²³, *KCCS*²⁸.

4 artikuluek ISS neurketa eskalaren bitartez neurtu zuten kulturarekiko sentsibilitatea antzeko lagin tamainetan ($n=50-100$)^{27,30,31,33}. Laurak hurrengo kontzeptuak jorratu zituzten: “osasuna eta kultura”, “erizaintza eta kultura”, “Erizaintza Transkulturalerako ereduak” eta “Sesgo Kulturala”. Horietatik Ozaydin et al.,-ren talde esperimentalak 3 asteetan zehar migrazioaren inguruko modulu teorikoak jaso ondoren, 9 asteetan zehar erakunde batean errefuxiatuen komunitatearekin praktika klinikoak egin zituelarik ISS maila handiagoa lortu zuen kontrol taldearekin alderatuta, ohiko praktika programarekin jarraitu zuenak (TE (M 89,2 vs 94.3); KT (M 88.8 vs 87.1) / $p=0.000$)³³. Estrategia pedagogiko indartsua izanda, ez du beste elkartrukeak bezala esfortsu ekonomiko horren handia inplikatzeko.

Ildo horretatik jarraituz, Erizaintza Transkulturalerako Ikasgaia (ETK) landu zutenen ikerketen emaitzak esanguratsuak dira ere. Horietako biren talde esperimentalek ETK-ko ikasgaia 2 ordu astero, 14 asteetan zehar burutu zuten, kontrol-taldeek iraupen bereko beste hautazko ikasgaia egin zutelarik^{30,31}. Çingol N-ren taldeek maila asegarria aurretik aurkeztu zuten eta beraz, ez zuten alde nabarmenik lortu taldeen artean hezkuntza interbentzioa burutu ostean (TE (M 94.63); KT (M 92.66); $p=0.859$)³¹. Bitartean Kaçan C-ren taldeek erakutsi zuten alde esanguratsua kulturarekiko sentsibilitatearekiko (TE (M 99.60); KT (M 93.01); $p=0.000$) (ez da ezagutzen interbentzioaren aurretik estatistikoki alde esanguratsua zenik interbentzioa egin aurretik)³⁰.

Agian Çingol C-k proposatutako hezkuntza aktibitate multzoa (elementu kultural desberdinak integratzen dituzten filmen garapena eta aurkezpena) ez zen nahikoa izan. Aldiz, Kaçan-en aktibitate multzoa anitzagoa zenez (talde lanak, kasu txostenak, filmak ikustea, artikuluen irakurketak), interkulturalitatearekiko ulermena eta estimua gehiago estimatu zezakeen. Ikasturte akademikoa aldagai baldintzatzaile bat izan zitekeen ere, Kaçan C-ren partaideak 2.mailakoa baitziren, Çingol N-renak 4.mailakoak zirelarik. Dena den, logikoagoa izango zatekeen ikasturtea zenbat eta handiagoa izan, kulturarteko sentsibilitate maila handiagoa izatea, praktika kliniko gehiago egin baitituzte non kultura askotariko egoerak bizitzeko aukera handiagoa izan dituzten.

Ildo beretik, Hua J et al.,-ren ikerketak antzeko iraupenarekin ere ETK-ko ikasgaia garatu zuen, ikasturte akademiko desberdineko laginen emaitzak kalkulatu. Ikasturte maila zaharragoko partaideek aurreko probetan ISS maila baxuagoa erakutsi zuten, hortaz, interbentzio aurreko eta osteko emaitzen arteko aldea handiagoa zen (2.maila: $p=0.004$; 3.maila: $p=0.001$; 4.maila: $p<0.001$)²⁷. Dena den, ez zen alde esanguratsurik aurkitu ikasturte desberdinen artean ISS- eskalaren emaitza totalen. Aitzitik, beste azterlanen ikerketa faltagatik ez dago argi ikasturte akademikoa zerikusirik duen konpetentzia kulturala eskuratzeko momentuan.

Hua J-ren azterlanean, interesgarria da aipatzea talde esperimentalak ETK burutzeaz gain, aukera izan zutela “Collaborative Online International Learning (COIL)” ikasgai gehigarria egiteko non AEB-ko ikasleekin batera eztabaidak sortzen zituzten osasun-arazo publikoen, medikuntza- eta erizaintza-sistemen eta kultureen inguruan. Ikasgai gehigarria egin zutenen ($n=7$) eta egin ez zutenen ($n=88$) arteko alde esanguratsua aurkeztu bazen ere ($p=0.017$), emaitzak ez dira guztiz fidagarriak, COIL egitea aukeratu zutenak izan zitekeelako gaien interes gehien zutenak²⁷. Dena den, interesgarria izango litzateke aztertzea nazioarteko elkarrekintza honek sentsibilitate maila handiagoak bultzatzen dituen irakaskuntza modu konbentzionalarekin alderatuta.

Simulazio-programen bitartez emaitza onuragarriak lortu ziren. Hala ere, gainontzekoekin alderatuz eskala desberdina erabili zutenez, emaitzen arteko konparazioa egitea zaila da^{23,28}. Dena den, agerikoa da simulazio programa hauek kultura-desberdintasunak ulertzeko eta balioesteko informazioa eta trebetasunak eskaintzen dizkietela parte-hartzaileei.

5.3.5.-KULTURAREKIKO ENPATIA

Enpatiaren garapena kultura-gaitasuna eskuratzeko lagungarria izan daiteke, pertsonak kultura-aniztasuna ezagutzera eta balioestera motibatzen baitu, baita beren jokabidea modu inklusiboagoan eta errespetuzko batera moldatzera ere³⁵. Hortaz, 5 ikerketek kulturarekiko enpatia maila aztertu zuten^{24,27,28,29,35},

Everson N et al.-en ikerketak fideltasun handiko simulazio bat egin zuen eta bertan parte-hartzaileak 3D bideo batean murgildu ziren, zeina hizkuntza eta kultura aldetik anitza den ingurunea irudikatzen zuen zentzumen-estimuluez lagunduta³⁵. *Modified Version of Kiersma-Chen Empathy Scale* erabiliz, taldeak igoera positiboa erakutsi zuen (TE → M 47,86 vs 49,24; $p<0,001$).

Enpatia elementu kognitibo eta afektiboek osatzen dute. Beraz, eskalaren bidez azpieskala kognitiboa (TE → M 28,53 vs 29,59; $p<0,001$) eta afektiboa (TE → M 19,34 vs 19,65; $p<0,01$) ere neurtu ziren³⁵. Erreaktibotasun Interpersonalaren Indizea (IRI) erabili zuen duen Shin M-en azterketak, ordea, ez zuen emaitza onik lortu azpieskala kognitiboan (T → M 3,62 ; KT → M 3,64 ; $p=0,879$) ezta azpieskala afektiboan ere (TE → M 3,58: KT → M 3,46; $p=0,225$), paziente estandarizatuarekin fideltasun handiko simulazioa egin arren²⁸. Turkelson C-k, *Jefferson Empathy Scale* bidez, ez zuen emaitza positiborik lortu simulazio-programan²⁴.

Çingol N-k, *Empathic Skill Scale Form B* bidez, ere ez zuen emaitza esanguratsurik lortu taldeen artean (TE → (M 151,54 vs 153,26) ; KT → (M 151,86 vs 153,62) / $p=0,940$) ETI esku-hartzea burutu ondoren³¹. Kaçan C-k, estrategia eta eskala pedagogiko bera erabiliz, emaitza esanguratsuak lortu zituen (TE→ (M 160,96); KT→ (M 132,15) / $p=0,000$) taldeen artean³⁰. Hala ere, ez da emaitza guttiz fidagarria, ez baitakigu desberdintasun hori lehendik zegoen ala ez.

Everson N-ren azterketa izan zen enpatiari buruzko emaitza fidagarriak eta esanguratsuenak eman zituen bakarra. Everson N-ren azterketa-lagina 460 ikasleek osatzen zuten eta horrek aniztasun handiagoko erantzunak igortzen ditu, orokortu daitezkenak³⁵. Beste 3 ikerketek 50-100 parte-hartzaile zituzten eta Turkelson C-k 26 parte-hartzaile baino ez zituen, horrek emaitzen orokortasuna eta baliozkotasuna gutxitzen du^{24,28,30,31}. Bestetik, ikasturte akademikoa gaitasun enpatikoak garatzeko orduan, faktore diferentziala izan bazen aztertu beharko litzateke lagin bakoitza ikasturte ezberdin batekoa baitzen. Azkenik, ikerketen jatorriaren heterogeneotasuna emaitzen arteko ezberdintasun horren adierazle izan daiteke, enpatiaren konnotazioa eta fokua testuinguru sozial eta kultural batetik bestera alda daitekeelako.

5.3.6.-DEBRIEFING METODO OSAGARRIA

Erabiltzen den metodo pedagogikoa edozein dela ere, aztertutako ikerketek ($n=10$) interbentzioa egin ondoren jarduera onuragarri gisa identifikatu zuten debriefing metodoa^{23-27,28,29,32,35-38}. Debriefing-a esperientziari buruz hausnartzean datza, egindakoaren eta ikasitakoaren inguruan eztabaidatzean eta feedback eraikitzailea ematean, ezagutzan, trebetasunean, jarreran eta komunikazioan dauden hutsuneak identifikatu eta konpontzeko¹⁵. Kasu honetan, parte hartzaileek kulturaren ulermen eta norberaren pertzepzioaz hausnartzeko aukera izan zuten, baita burutu zituzten elkarrekintzei buruz ere. Alderdi hau aipatzea garrantzitsua da, gaitasun kulturala eskuratzeko prozesuan funtsezko elementua baita, edozein estrategia pedagogikotan txerta daitekeena.

6.MUGAK

Ikerketen arteko heterogeneotasuna muga bat da emaitzen analisi konparatiboari dagokionez. Diseinu motari dagokionez, askotariko diseinuak zeuden, esku-hartzearen eraginkortasuna aztertzeko helburua partekatzen badute ere, emaitzen aurkezpena eta barne-balioetasuna desberdinak dira, artikuluen kalitatea arriskuan jarriz. Diseinu pre-esperimentaletan ez dago kontrol talderik, beraz, zaila da egiaztatzea eta ziurtatzea talde esperimentalaren barruan gertatutako aldea tratamenduari zor zaiola eta ez beste faktore edo sesgo batzuei. Ausazko laginketa-metodirik erabiltzen ez zuten ikerketek hautapen-sesgoa izan zuten. Bestalde, errebisio lan honetan barneratutako bi ikerketek esku-hartzearen ondoren soilik neurtu zuten kultura-gaitasuna, beraz, ez da ezagutzen taldeen arteko aldea esku-hartzea baino lehen bazegoen. Alderdi horiek zaildu egiten dute emaitzak biztanleria erreal bat irudikatzea.

Bestalde, heterogeneotasuna ere bazegoen ikerketa bakoitzaren jatorriari dagokionez. Estrategia pedagogiko bakoitzaren garapena tokiko eta nazioaren ezaugarri eta arau politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen menpe dago, eta hori eredu teoriko, ebaluazio planteamendu eta ikaskuntza jarduera estandarrik ezean islatzen da. Horrek ondorio garrantzitsu bat du: zaila da emaitzak Espainiako-Europako testuingurura orokortzea.

Ebaluazioaren ikuspegia ere aldatzen da ikasketen artean. Alde batetik, neurketa-eskala ugari identifikatu ziren berrikusketan, zeinek, balioztatuta eta fidagarritasun nahikoa izan arren, analisi konparatiboa egitea zailtzen dute erabiltzen dituzten item eta irizpide ezberdinetatik. Gainera, diseinuaren berezko sesgo kulturalaren menpe dauden neurketa-sesgoak daude. Bestalde, ikerketek konstruktua desberdinak erabiliz neurtu zuten kultur gaitasuna, batzuk alderdi kognitiboetan gehiago zentratuz eta beste batzuk alderdi praktiko edo/eta afektiboetan. Enpatia bezala, pertsona bakoitzaren autoeraginkortasuna ere aldatzen da testuinguru kulturalaren arabera. Beraz, alderdi hau emaitzekin erlazionatutako aldagai handia da.

Azkenik, literatura berrikuspen honen metodologiari dagokionez, modu zorrotz eta sistematiko batean egiteko ahalegina egin bada ere, ahulgune batzuk daude. Eraikitako ekuazioa generikoa izan daiteke, beraz, lortutako emaitzak zabalak izan ziren baina ez oso zehatzak. Ondorioz, bilaketak ikerketa-objektuari erantzuten ez zioten artikulua ugari igorri zituen, kalitatezko artikulua hautatzea zaildu egin zuena. Bestalde, egilearen hautapen-sesgoa egon zen, artikuluen aukeraketa kultura etnikoetara bideratuagoa zegoelako, beste kultura minoritario batzuk alde batera utzita, hala nola generoa (LGTBIQ+ taldea) edo desgaitasuna.

7.-ONDORIOAK

Zaila da adieraztea zein den esku-hartze eraginkorra gaitasun kultural maila egokia lortzeko, gaitasun kulturala baldintzatzen duten aldagai ugariaren ondorioz eta uniformetasun faltagatik. Dena den, lan honen bitartez, froga daiteke estrategia pedagogiko desberdinak eraginkorrak eta beharrezkoak direla kultura-gaitasunaren zenbait konstruktio garatzeko.

Irakasgai teorikoetan oinarritutako esku-hartzeek ezagutza eta sentsibilitate kulturala garatzeko duten eraginkortasuna erakusten dute. Ikasleak ulertu behar du kulturaren esanahia eta nola baldintza duen gure ikuspuntua eta jarduteko modua, gero egoera transkulturaletan jardun ahal izateko, interpretazio, estereotipo eta aurreiritzi okerrak sortu gabe. Gainera, gai bati buruzko ezagutza izateak egoera baten aurrean norberaren autoeraginkortasuna handitzen du. Hua J-k²⁷ proposatzen duen “COIL” bezalako modalitate interaktiboak onuragarria izan daitezke, beste herrialde eta kulturetako ikasleekin elkarreginarekin bidez, ikasketa prozesua sustatzen duten eztabaida sakonagoak sor daitezkelako.

Eduki teorikoak hezkuntza-curriculumean txertatzeak kultura-gaitasunaren alderdi kognitiboa hobetzen du (batez ere ezagutza eta ulermen-mailetan oinarritzea), hala ere, ikaskuntza-forma enpiriko edota praktikoa bat integratzea beharrezkoa da. Hain zuzen ere, kultura arteko elkarrekintza onuragarria eta ezinbestekoa da hainbat konstruktio kulturalen garapenean.

Epe laburreko kultura elkartrukeek ikaslea murgiltzen den kultura jakinaren ulermen sakonago eta zehatzagoa ekar dezakete, egokitzapen- eta komunikazio-gaitasunen garapena erraztuz. Gainera, positiboki suspertzen du gaitasun kulturalaren dimentsio afektiboa. Hala ere, errebisio lan honetan barneratutako ausazko entsegu kliniko batek erakusten du ez dela beharrezkoa beste herrialde batera joatea kultur aniztasun handiko komunitate batekin harremanetan jartzeko. Praktika klinikoak tokiko erakunde batean egitea nahikoa izan daiteke emaitza positiboak sortzeko, kostu ekonomiko handirik ekarri gabe. Gainera, estrategia pedagogiko honen irisgarritasuna zabalduko luke, ikasle guztiek ezin baitute beste herrialde batera bidaiatu arrazoi ekonomikoak eta bestelakoak direlako.

Simulazio-programek gaitasun kulturalaren dimentsio praktikokoetan ere emaitza positiboak sortzen dituzte. Gainera, hauek modalitate teorikoekin batera integra daitezke. Presentziazko simulazioa ez bezala, simulazio birtualak ikasleek denbora edo espazio mugarik gabe praktikatzeko aukera ematen du, aktoreen (paziente estandarizatuak) beharrik gabe, aldi berean, errentagarriagoa izan daitekena. Aspektu honi dagokionez, interesgarria izango litzateke baliabideak optimizatzeko eragin positiboa sortzeko ahalmena duten jardueren horien kostu-eraginkortasuna aztertzen duten azterlanak egitea.

Alderdi guzti hauek UPV/EHU-ko unibertsitatearen testuingurura hurbilduz gero, hurrengo ekarpenak baloratu daitezke etorkizunera begira. UPV/EHU-ko Erizaintza Gradu ikasketa planak “Kultura, Osasuna eta Zainketak” deituriko hautazko irakasgaia eskaintzen du (4,5 ETC = 45h) 3.mailan.

Erabilitako metodologia klase magistraletako, mintegietako eta Problemetan Oinarritutako Ikaskuntzako pedagogian oinarritzen da ⁴⁰. Zehazki Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskolari erreparatu, European Nursing Module-a (ENM), Europako beste herrialde batean 2 asteko elkartruke programa, eskaintzen du. Honelako ekimene eta klase magistralen arteko konbinazioak gaitasun kulturalaren emaitza bikainak sor ditzake ⁴¹. Hala ere, ENM-a burutzen duten ikasleek ez dute inolako dirulaguntzarik jasotzen, programaren irisgarritasunak mugatuz. Hori dela eta, proposatu zitekeen Eusko Jaurlaritzan edota Hezkuntza Ministerioan nolabaiteko diru estaldura, gutxienez behar handiena duteneentzat.

Ildo honetatik jarraituz, hautazko ikasgaia hautatzen ez dutenen kasuan, gainerako ikasgaietan ikuspegi transkulturala gehitzea nahikoa izan daiteke gaitasun kultural minimoa eskuratzeko. Esaterako, jatorri kultural ezberdineko pazienteak irudikatzen duten kasu klinikoek bitartez. Izan ere, Eskolako simulazio eszenatokiak aspektu kultural ezberdinak gehitu daitezke, simulazio fideltasuna handituz. Esate baterako, paziente estandarizatu errealek baliatzeko arazoak egonez gero, azal kolore desberdineko *mannequin*-ak baliatu daitezke, bere istorioan ezaugarri kultural anitzak aurkezten dutelarik.

Bestalde, azterketen diseinuen heterogeneotasuna kontuan hartuta, ausazko laginketarekin azterketa gehiago sortzeko beharra antzematen da, koherentzia eta baliotasun handiagoko analisi fidagarriak lortzeko. Gainera, aipatzekoa da neurketa gehienak esku-hartzeak burutu eta ia berehala egin zirela. Beraz, esku-hartzeen eragina epe luzean ezezaguna da. Horregatik, interesgarria izango litzateke etorkizunean esku-hartzeak denbora-tarte desberdinetan duen eragina aztertzen duten ikerketa longitudinalak egitea, ikasleen gaitasuna kulturalaren garapenaren helburua baita bere ibilbide profesionalean zehar irautea kulturalki kongruenteak den praktikak burutzeko.

Era berean, erlazio kausalak identifikatzeko ezinbestekoa da aldagai ezberdinek kultura-gaitasunaren emaitzetan duten eragina kontrolatzea, hala nola, osaera etnikoa, ikasturte akademikoa, esku-hartzeen iraupena eta ebaluazio-ikuspegi desberdinak.

Amaitzeko, gaitasun kulturala hainbat azpidimentsioz osatutako dimentsio konplexua da. Hala ere, gaitasun kulturala erizaintzako ikasleen hezkuntza-curriculumean txertatzea funtsezko faktorea da etorkizunean kulturalki kongruenteak diren praktikak eskaintzeko eta osasun zein hezkuntza politiketan eta gizarte inposatutako etnozentrismoari aurre egiteko. Hortaz, garrantzitsua da kultura aniztasunarekiko ezagutza, trebetasuna, sentsibilitatea eta jarrera enpatikoak sustatzen dituzten estrategia desberdinak garatzen, ezartzen eta konbinatzen jarraitzea. Era berean, beharrezkoa da estrategia pedagogikoa edozein izanda ere, ikasleen pentsamendu kritikoa estimulatzea ideien ebaluazioa eta eskuratutako ezagutzen aplikazio praktikoa errazteko. Hori dela eta, ezinbestekoa da ahaleginak inbertitzen jarraitzea eredu teoriko egoki batek eta nazioarteko ildoek gidatutako baliozko estrategiak eta metodo uniformeak ikertzeko eta garatzeko, betiere eskualde edo herrialde bakoitzaren testuinguru sozial eta kulturalera egokituta.

Gaiaren inpaktua Garapen-Jasangarrirako Helburuekiko

Egindako ikerketen analisiari esker, Erizaintzako hezkuntzaren barruan dimentsio kulturalen sakontzen jarraitzeko beharra planteatzen da, etorkizunean pertsonen duintasunaren errespetu maila areagotzeko eta osasun emaitza hobekak eta pazienteen zein profesionalen gogobetetze maila handiagoa lortzeko. Beraz, literatura errebisio honek balio demokratikoak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzen laguntzen du.

Alde batetik, erizaintzako ikasleentzat eraginkorrenak diren hezkuntza-esku-hartzeak zein diren ikertuz, etorkizunean eskaintzen duten asistentziaren kalitatea hobetu liteke, aniztasun kulturalako pazienteen aurrean haien lehentasunak eta beharrak behar bezala identifikatuz betiere haien duintasuna errespetatuz. Horrek zuzenean laguntzen dio "Osasuna eta Ongizatea" 3. GJH-ri ⁴²⁻⁴³.

Era berean, erizaintzako ikasleentzako hezkuntza-esku-hartzeak ebaluatuz, hobekuntza-arloak identifikatu daitezke kalitatezko hezkuntza eskaintzeko. Horrek ziurtatzen du etorkizuneko osasun-profesionalak ondo prestatuta daudela gai honekin erlazionaturiko erronkei aurre egiteko eta kalitate handiko arreta integrala emateko. Horrela "Kalitatezko Hezkuntza" 4. SDG-a betez ⁴²⁻⁴³.

Azkenik, berrikuspen honek 10. Helburua "Desberdintasunak murrizten" betetzen laguntzen du. Hala bada, erizaintzako ikasleen prestakuntza hobetuz dimentsio kultural honetan, kalitatezko asistentziaren eta kultura minoritarioen komunitateen arteko aldea murriztu daiteke. Hortaz, prestazio integralak sortzeko kezka egongo litzateke osasun-arloko disparitateak murrizteko asmoz ⁴²⁻⁴³.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

1. Kultura Definizioa (UNESCO-ren definizioa) [Internet]. Eustat.eus. [2024-ko otsailak 12 zitatuta]. Eskuragarri hemen: https://www.eustat.eus/documentos/opt_1/tema_25/elem_11183/definicion.html
2. del Plaza Pino FL, del Plaza Pino MD, Martínez ML: Inmigración en el poniente almeriense: pobreza, desarraigo, salud mental e implicación en el cuidado. Immigration in Western Almeria. Presencia. 2005;1(2).
3. Sánchez MA, Segura A, Gallardo MA, Alemany I. Enfermería Transcultural. Formación de los futuros profesionales de Enfermería en España. Index Enferm (Gran) 2018;27(4):1-4.
4. Palank, CL. (1991). Determinants of health-promotive behavior. A review of current research. Nurs Clin North Am. 1991;26(4):815-832.
5. Butler M, McCreedy E, Schwer N, Burgess M, Call K, Przedworski J et al. Improving Cultural Competence to Reduce Health Disparities. Rockville (MD): Agency for Healthcare Research and Quality U.S Department of Health and Human Services. 2016;170.
6. Registered Nurses' Association of Ontario. Embracing Cultural Diversity in Health Care: Developing Cultural Competence. RNAO; 2007.
7. American Association of Colleges of Nursing. Cultural Competency in nursing education. AACN; 2008.
8. Campinha-Bacote, J. Delivering patient-centered care in the midst of a cultural conflict: The role of cultural competence. Online J. Issues Nurs. 2008; 16(2):5.
9. McFarland M, Wehbe-Alamah H. Leininger's Theory of Culture Care Diversity and Universality: An Overview With a Historical Retrospective and a View Toward the Future. J Transcult Nurs. 2019; 30(6): 1-18.
10. Marrero CM. Enfoque del modelo. de Purnell y Campinha-Bacote en la práctica de los profesionales sanitarios. Rev ENE Enferm. 2013; 7(3): 2-9.
11. Purnell, L. The Purnell model for cultural competence. Journal of transcultural nursing 2002;13(3):193-196.
12. Campinha-Bacote J. The journey continues: the process of cultural competence in the delivery of healthcare services. 5.edizioa. Cincinnati, OH: Transcultural C.A.R.E. Associates. 2007.
13. Cruz J, Aguinaldo A, Estacio J, Alotaibi A, Arguvanli S, Cayaban A, John Cecily H et al. A Multicountry Perspective on Cultural Competence Among Baccalaureate Nursing Students. J Nurs Scholarsh. 2018;50(1):92-101.
14. Bønløkke M, van der Linde L, De Lorenzo E. Situations and strategies for cultural learning in a short exchange programme. Nord. J. Nurs. Res. 2018; 38(4): 204-211.
15. International Nursing Association for Clinical Simulation and Learning Standards Committee. (2016). INACSL standards of best practice: Simulation Outcomes and Objectives. Clin. Simul. Nurs. 2016; 12: S13-S15.

16. Vázquez MA, Casals A, Sánchez MA, García M. Spanish adaptation and validation of the Cultural COmpetence Assessment Tool (CCATool) for undergraduate nursing students. *Int Nurs Rev.* 2023; 70: 43-49.
17. Instituto Nacional de Estadística. Flujo de inmigración procedente del extranjero por semestre, sexo y edad [Internet]. INE. [Otsailak 16, 2024 zitatura]. Eskuragarri hemen: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=24387>
18. Ikuspegi. Panorámica de la inmigración en Euskadi [Internet]. Ikuspegi; [Zitatuta apirilak 18, 2024]. Eskuragarri hemen: <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan84cas.pdf>
19. Instituto Vasco de Estadística (Eustat). La población de la C. A. de Euskadi ganaría casi 85.000 personas entre 2021 y 2036. *Prentsa-oharra* 14/07/2022. Proyecciones demográficas 2036. [Internet]. Eustat; [Zitatuta apirilak 18, 2024]. Eskuragarri hemen: https://www.eustat.eus/elementos/la-poblacion-de-la-c-a-de-euskadi-ganaria-casi-85000-personas-entre-2021-y-2036/not0020005_c.html
20. Consejo General de Enfermería de España. (2011). Código Deontológico de la Enfermería Española.
21. Ochs J. Addressing health disparities by addressing structural racism and implicit bias in nursing education. *Nurse Educ Today.* 2023; 121:105670.
22. Page MJ, McKenzie JE, Bossuyt PM, Boutron I, Hoffmann TC, Mulrow CD, et al. The PRISMA 2020 statement: an updated guideline for reporting systematic reviews. *BMJ.* 2021;372(3):71.
23. Fiovaranti MA, Hagle H, Puskar K, Knapp E, Kane I, Lindsay D et al. Creative Learning Through the Use of Simulation to Teach Nursing Students Screening, Brief Intervention, and Referral to Treatment for Alcohol and Other Drug Use in a Culturally Competent Manner. *J Transcult Nurs.* 2018;29(4): 387-394.
24. Turkelson C, Cooper D, Creech C, Schellenberg K, Behnke L. Using simulation to enhance nurse practitioner students cultural sensitivity, communication, and empathy with vulnerable populations. *Clin Simul Nurs.* 2021;56:108–116.
25. Nimmo C, Behnke L, Creech C, Schellenberg K, Turkelson C, Cooper D. Using Simulation to Educate Rural NP students About Cultural Congruence. *J Nurse Pract.* 2021;17: 476-480.
26. Ozkara San E. Effect of the Diverse Standardized Patient Simulation (DSPS) Cultural Competence education strategy on nursing students' Transcultural Self-efficacy perceptions. *J Transcult Nurs* [Internet]. 2019;30(3):291–302
27. Hua J, Kondo A, Moross J. Enhancing intercultural sensitivity in Japanese nursing students through international online nursing courses: A quasi-experimental study. *Nurse Educ Today.* 2023;128 :105870.
28. Shin M, Na H, Kim S. Enhancing cultural competency and empathy toward foreign patients for Korean nursing students through a simulation: A quasi-experimental study. *Nurse Educ Pract.* 2023;69 :103615.
29. Alexander-Ruff JH, Ruff WG. The impact of cultural immersion service learning on BSN graduates: A quasi-experimental evaluation. *Nurse Educ. Pract.* 2021;54:103099.

30. Kaçan CY, Örsal Ö. Effects of transcultural nursing education on the professional values, empathic skills, cultural sensitivity and intelligence of students. *J Community Health Nurs.* 2020;37(2):65–76.
31. Çingöl N, Karakaş M, Çelebi E, Zengin S. Determining the effect of an intercultural nursing course on empathic skill and intercultural sensitivity levels: An intervention study. *Nurse Educ Today.* 2021;99:104782.
32. Fung JTC, Chan SL, Takemura N, Chiu H-Y, Huang H-C, Lee J-E, et al. Virtual simulation and problem-based learning enhance perceived clinical and cultural competence of nursing students in Asia: A randomized controlled cross-over study. *Nurse Educ Today.* 2023;123:105721.
33. Ozaydin T, Kocoglu Tanyer D, Akin B. Promoting the attitudes of nursing students towards refugees via interventions based on the contact hypothesis: A randomized controlled trial. *Int J Intercult Relat.* 2021;84:191–199.
34. Kula Y, Cohen O, Clempert N, Grinstein-Cohen O, Slobodin O. Educating nursing students for cultural competence in emergencies: a randomized controlled trial. *BMC Nursing.* 2021;20(1):1-12.
35. Everson N, Levett-Jones T, Lapkin S, Pitt V, Riet P, Rossiter R et al. Measuring the impact of a 3D simulation experience on nursing students' cultural empathy using a modified version of the Kiersma-Chen Empathy Scale. *J. Clin. Nurs.* 2015;24:2849-58.
36. Chan EA, Liu JYW, Fung KHK, Tsang PL, Yuen J. Pre-departure preparation and co-curricular activities for Students' intercultural exchange: A mixed-methods study. *Nurse Educ Today.* 2018;63:43–49.
37. Kohlbry PW. The impact of international service-learning on nursing students' cultural competency. *J Nurs Scholarsh.* 2016;48(3):303–311.
38. Young J, Jerolimov D, Ofner S. Promoting nursing students' transcultural self-efficacy to care for Burmese refugees using a set of educational strategies. *Nurs Forum.* 2021;56(2):460–466.
39. Lewis K, Bohnert C, Gammon W, Hölzer H, Lyman L, Smith C et al. The Association of Standardized Patient Educators (ASPE) Standards of Best Practice (SOBP). *Adv Simul.* 2017; 2(10):1-8.
40. Euskal Herriko Unibertsitatea . Eriziantza Gradua. Kredituak eta irakasgaiak ikasturteka. UPV-EHU.Eskuragarri hemen:
https://www.ehu.es/es/web/graduak/grado-enfermeria-bizkaia/creditos-y-asignaturas?p_redirect=consultaAsignatura&p_cod_proceso=egr&p_anyo_acad=20230&p_ciclo=X&p_curso=3&p_cod_asignatura=28372
41. European Nursing Module (ENM) Network-Home.Enm network.com. Eskuragarri hemen:
<https://www.enm-network.com/>

42. Naciones Unidas. Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Nueva York: Naciones Unidas; 2015. Eskuragarri hemen: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>.

43. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. EHUagenda 2030 para el Desarrollo Sostenible. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; 2019. Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.eus/documents/4736101/11938005/EHUagenda-2030-ENG.pdf/487b2c83-51e1-d0e2-dcd1-af419b2b5c26?t=1559656838000/>.

ERANSKINAK

1. Eranskina: Kontzeptu-taula

Kontzeptu nagusia	Lengoaia naturala		Lengoaia kontrolatua (deskriptoreak)
	Sinonimoa	Ingelesez	
Erizaintzako ikaslea	Erizainak, Ikaslea Erizaina, Ikaslea Ikasle Erizaina Erizaintzako Ikaslea Erizaintzako Ikasleak	Nurses, Pupil Nurse, Pupil Pupil Nurse Nursing Student Nursing Students	Medline (MeSH): Students, Nursing CINAHL (Descriptores de CINAHL): Students, Nursing PsycINFO (Thesaurus): Nursing Students Cochrane Database (MeSH): Students, Nursing CUIDEN: Estudiantes enfermería EMBASE (EMTREE): Nursing student
Heziketa	Erizaintza heziketa Heziketa, Erizaintza	Nursing Education Educations, Nursing Nursing Educations Teaching	Medline (MeSH): Education, Nursing CINAHL (Descriptores de CINAHL): Education, Nursing PsycINFO (Thesaurus): Nursing education Cochrane Database (MeSH): Education, Nursing CUIDEN: Educación, Enfermería EMBASE (EMTREE): BUSCAR
Erizaintza transkulturala	Erizaintza, Transkulturala	Nursing, Transcultural	Medline (MeSH): Transcultural Nursing CINAHL (Descriptores de CINAHL): Transcultural nursing PsycINFO (Thesaurus): Cross Cultural treatment Cochrane Database (MeSH): CUIDEN: Enfermería Transcultural EMBASE (EMTREE): Cultural Nursing
Gaitasun kulturalak	Konpetentzia kulturalak Sentikortasun kulturala Artapen kulturala Kultura-gaitasunak Sentikortasuna, Kulturala Konpetentzia, Kulturala	Competency, Cultural Cultural Competencies Cultural Sensitivity Cultural Sensitivities Sensitivities, Cultural Sensitivity, Cultural Cultural Competence	Medline (MeSH): Cultural Competency CINAHL (Descriptores de CINAHL): Cultural Competency PsycINFO (Thesaurus): Cultural Sensitivity / Cultural Competence Cochrane Database (MeSH): Cultural Competency CUIDEN: Competencia Cultural EMBASE (EMTREE): Cultural Competence

2. Eranskina: Bilaketa-taula

Data-basea	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
MEDLINE (OVID)	(Students, Nursing) AND ((Cultural Competency) OR (Transcultural Nursing)) Limiti to yr '2015-2023'	280	22	Kanporatze irizpideak jarraituz PIKOA erantzuten ez zuten artikulua zuzenean baztertu dira (n=198). Bestetik, berrikusketa sistematikoak eta ikerketa kualitatiboak baztertu dira, hezkuntza programen eraginkortasun modu kuantitatiboan aztertzen duten artikulua erabiliko direlako. Izan ere, nahiko artikuluren helburua deskriptiboa zen. Zenbait artikuluek aztertzen zuten gaitasun kulturala eskuratzeko eragin negatiboa zein positiboa duten faktoreak. Beste batzuk, aldiz, hezkuntza programan zertan datzan azaltzen zuten (n=60)
PsycINFO	(Nursing students) AND ((Cultural Sensitivity) OR (Cultural Competence) Limit to yr '2015-2023'	58	5	Lortu diren bilaketa emaitzetatik PIKO ekuazioa erantzuten ez zuten artikulua baztertu dira (n=38). Gainerako artikulua baztertu dira hurrengo arrazoak direla eta: berrikusketa sistematikoak, ikerketa kualitatiboak, doktorego tesiak.
EMBASE	(Nursing student) AND ((Cultural competence) OR (Cultural nursing)) Limit to yr '2015-2023'	283	37	Lortutako emaitzetatik baztertu dira barneratze irizpideak betetzen ez dituzten hurrengo ikerketak: PIKO-ari ez diote erantzuten (n=212). Izan ere P aldagaiari dagokionez hainbat artikulua erizainak ez ziren ikasleak ere aztertu dituzte, beste batzuk berrikusketa sistematikoak dira eta hainbat ikerketa kualitatibo eta deskriptiboak dira (n=34).
COCHRANE	(Students, Nursing) AND ((Cultural Competency) OR (Transcultural Nursing)) Limiti to yr '2015-2023'	7	3	Baztertu diren 2 artikulua erizain ikasleak ez diren beste populazioa bat aztertzen dute.
CINAHL	(Students, Nursing) AND ((Cultural Competency) OR (Transcultural Nursing)) Limiti to yr '2015-2023'	325	31	PIKO-a erantzuten ez duten artikulua baztertu dira hasiera batetik (n=233) Batez ere, bilaketa emaitzak ikerketa kualitatiboak azaldu dituzte. Hainbat berrikusketa sistematiko eta doktorego tesiak ere aurkitu dira (n=61).
CUIDEN	(Estudiantes Enfermería) AND ((Competencia Cultural) OR (Enfermería Transcultural)).	16	0	Bilaketa honetan lortutako emaitza gehienak eskalen balidazioari eta egokitzapenari buruz jarduten dute. Literatura errebisio bat lortu da baita ere. Hala ere, emaitza hauek ez datoz bat barneratze irizpideekin, beraz, denak baztertu dira.

Aldizkaria	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
Nurse Education Today	(Students, Nursing) AND ((Cultural Competency) OR (Transcultural Nursing)) Limit to yr '2015-2023 and research article	470	14	Emaitza zenbaki handia lortu arren, PIKO-arekin bat egiten duten izenburuak (n=98). Izan ere, horietatik, batzuk ez dituzte barneratze irizpideak betetzen eta hainbat ikerketa kualitatiboak dira.
Journal of Transcultural Nursing	(Students, Nursing) AND ((Cultural Competency) OR (Transcultural Nursing)) Limit to yr '2015-2023	173	10	Eskuratutako artikuluetatik n=45-ek, PIKO-ari erantzuten diote. Hala ere, azterlan batzujk berrikusketa sistematikoak edo azterlan deskriptiboak dira (n=35).

Ebidentzia oinarritutako erakundeak	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
RNAO	Cultural Competency in Nurse Education	10	1	Hainbat emaitzek (n=9) aspektu kulturekin eta kultura aniztasunarekin bat datozen gidak edota artikulua biltzen dituzte. Hala ere, emaitzetako batek (n=1) bakarrik azaltzen ditu erizaintzako diziplinan kompetentzia kulturala garatzeko eta ezartzeko jarraibideak.
NICE	Cultural Competency AND Nursing Education	15	0	Emaitzek gizarte-arreta beharrei erantzuteko artikulua edo gidak erakusten dituzte, baina ez dute kultura-kompetentzia berez bideratzen.

3.Eranskina: Ikerketa kuantitaboko azterketa irakurketa kritikoa egiteko gidioa

Artikulua: Shin M et al		
Helburuak eta hipotesiak	<p>Helburuak edo/eta hipotesiak argi eta garbi zehaztuta daude?</p> <p>« Ikerketan, honako hauek dituzte helburu: (1) erizaintza transkulturalaren simulazioan oinarritutako ikaskuntza (TN-SBL) programa bat garatzea eta eskaintzea, paziente estandarizatuak erabiliz, Koreako graduko erizaintzako ikasleei Emiratariko pazienteekin eta haien senideekin komunikatzen eta zaintzen laguntzeko; eta (2) programak ikasleen gaitasun kulturalen eta enpatian dituen ondorioak ebaluatzea. »</p> <p>Hipotesi hauek formulatzen dira ere:</p> <p>«1. hipotesia. Esku-hartze taldeko erizaintzako ikasleen eta kontrol taldekoen artean denboran zehar desberdinak izango dira gaitasun kulturalaren mailak.</p> <p>2. hipotesia. Enpatia-mailak desberdinak izango dira esku-hartze taldeko erizaintzako ikasleen eta kontrol taldekoen artean denboran zehar. »</p> <p>(Testuingurua atalean, bosgarren paragrafoan).</p>	BAI
Diseinua	<p>Erabilitako diseinu-mota egokia da ikerketaren helburuari dagokionez (helburuak edo/eta hipotesiak)?</p> <p>« Azterketa kuasi esperimental auzazko ez den kontrol-talde eta talde esperimental baten bidez egin da, programak kultur gaitasunean eta enpatian dituen ondorioak ebaluatzeko aurreko eta osteko azterketa baten bitartez. » (Metodologia atalean; 3.1.puntuan 3-6 lerroak).</p> <p>Egokia da ikerketaren helburua aztertzeko diseinu kuasi-esperimental erabiltzea, honen bitartez interbentzioaren inpaktu kasuala aztertzeko. Izan ere, talde esperimental eta kontrol taldea dauka, interbentzioa jasotzearen eta ez jasotzearen artean egon daitekeen desberdintasuna aztertzeko.</p>	BAI
	<p>Esku-hartze azterlan bat edo azterlan esperimental bat bada, esku-hartzea egokia dela ziurta dezakezu? Esku-hartzea sistematikoki ezartzeko neurriak jartzen dira?</p> <p>« Azaltzen da zertan datza programa. Izan ere, artikuluko lehenengo taulan azalduta agertzen da atalez atal erabilitako edukiak (Ikaskuntza-helburua, emaitza, ikastaroaren fluxua, espazioaren ezarpena, eszenatokiaren pertsonaiak eta egoera klinikoa, ekipamenduak eta hornigaiak, debriefing osagaiak eta edukia).</p>	BAI
